

Ohikoa da politika neoliberalak EAJ, PSE-EE eta PPren artean erabakitzea

**“Funtsezkoa -Gastu-Araua- PPk eta EAJk uztailaren 11n
adostu zuten; politika horrekin Aurrekontuek
desberdintasun sozialak areagotzen dituzte”**

Gasteiz, 2017ko azaroaren 21a



1.- ERREALITATE LARRIA EZKUTATZEN DUTE: Aurrekontu hauekin desberdintasun sozialak areagotzen dira. Hazkunde ekonomikoa izanagatik ere, desberdintasunak hazten ari dira. Zergatik? Krisian hartu ziren erabakien ondorioz; erabaki horiek soldatek ekonomian duten zatia murriztu dute, eta gizarte-prestazioak eta zerbitzu publikoak kaltetu egin dituzte.

Aurrekontu hauekin desberdintasuna areagotu egingo da. Proiektu hau aurkeztu dutenek, munduko neoliberal guztiek bezalaxe, merkatuaren esku uzten dute sortzen ditugun baliabide eta aberastasunaren banaketa. Aurrekontu hauekin Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen parte hartzea txikiagoa izango da.

2.- BESTE AURREKONTU-POLITIKA BAT BEHARREZKOA ETA EGINGARRIA DA. Datuak hartu eta Eusko Jaurlaritzaren propaganda alde batera utziz gero ondorio batera iritsiko gara: Ez da egia hauek historiako "aurrekonturik sozialenak" direnik. Inola ere ez. Aurrekontuek doikuntzaren ildoari jarraitzen diote.

2009ko aurrekontuak erreferentzia gisan hartuz gero, orduko gastu maila iristeko Osasunean **233** milioi euro gehiago beharko litzateke; **108** milioi gehiago Hezkuntzan, eta **80** Etxebizitzan. Horiek dira datu gordinak.

EBko batez besteko mailara ailegatzeko, berriz, Osasunean **1.709** milioi gehiago beharko lirateke eta **934** milioi Hezkuntzan. Hauek ere datu gorriak dira.

Zein da aurrekontuek BPGan duten pisua? Erantzuna izugarria da: azken urteetan **BPGaren %15etik %12,8ra** jaitsi da. %15ean mantentzekotan **1.709** milioi gehiago beharko genituzke. Datu hauek ere gobernuaren propaganda agerian uzten dute.

Baina ez da hori okerreina: Jaurlaritzak emandako datuen arabera 2017ko ekitaldia **478 milioiko superabitarekin** itxiko da. Nork ixten du aurrekontua superabitarekin, beharizan sozial larriak izanagatik ere? Soilik neoliberalak.

Hala da; aurrekontu hauek egin dituztenak ez dira sozialistak, sozialdemokratak edo keynesiarrak. Aitzitik, datuek erakusten dute neoliberalak direla.

Propaganda kanpaina handi bat behar da aurrekontuen benetako izaera mozorrotzeko; propaganda behar da sinestarazteko aurrekontu sozialak direla.

3.- OINARRIZKOA DAGOENEO PP-REKIN HITZARTU DUTE. Gastu-Araua. Hemen bildu garen sindikatu eta gizarte-mugimenduok azaldu behar diogu jendeari politikak azaltzen ez duena: "Gastu-Araua" zer den eta zertarako ezarri duten.

Arau hori astakeria bat da. Ondorio gaiztoak ditu: diru-bilketa handituta ere -orain gertatzen ari den bezala-ezin da diru hori erabili gastu soziala hobetzeko. Gastu-Araua debekatzen du hori. Orain arte, krisiaren azken urteetan, mozketak justifikatzeko diru-bilketa txikiagoa zela esaten ziguten. Baina orain ezin dute argudio hori erabili: ogasunak diru gehiago ari dira biltzen; horregatik Gastu-Araua ezarri dute, murrizketak eta politika bera mantentzeko. Astakeria hutsa.

Gastu-Araua PP eta EAJren artean uztailaren 11n hitzartu zuten. Lehendakaria harro dago halako akordioez, "aldebikotasuna"ren emaitza direla esaten baitu. Haatik, aldebikoak soilik han eta hemen aplikatzen diren politika neoliberalak dira. Gastu-Arauaren helburua da diru gehiago bilduz gero ez dadila erabili zor publikoa amortizatzeke. Gainera, gogoratu beharra dago gauza bat: zor publikoa ez da hazi gastu soziala handiegia delako; aitzitik, presio fiskala arinegia delako puztu da. Horregatik jarri dute iaz baino %12 gehiago zorra ordaintzeko; kontrara, aurrekontuko sail sozialak izoztu egin dituzte, edo iguera ia ez da antzematen.

Gastu-Arauarekin demokrazian onartu ezin den zerbait gertatzen da: Aurrekontuari ezin zaio egin gastua gehitzeko zuzenketarik. Horregatik esaten dugu antzezpen politikoa alde batera utzita aurrekontuaren funtsa erabakita dagoela, Legebiltzarrera iritsi baino lehenago ere.

Gastu-arauak beste helburu batzuk ere baditu. Lau aipatuko ditut:

1. **Zerbitzu publikoen pribatizazioa gidatu.** Gastu publikoa mugatuta administrazioak presiopean daude zerbitzuak emateko aukera bazter dezaten.
2. **Beharpen fiskalekin jarraitu** errenta altuentzat, kapital eta enpresentzat.
3. **Ardura instituzionalera iristen den klase politiko guztia** politika neoliberalen muga estuetara lerratzea; Egonkortasun Legea eta bere ondorengo emaitzak errespetatzea.
4. **Gastu-araua eta autogobernua ez dira bateragarriak.** Kontzertuaren filosofia, alegia, euskal administrazioak diru-sarrerak eta gastuak erabakitzeko ahalmena duela, Gastu-Arauekin zalantzan geratzen da. Gastua igotzerakoan euskal administrazio guztiak behartuta daude PPK eta EAJk erabakitako portzentaje hori aintzat hartzera.

4.- AKORDIO ESTRUKTURALA, EAJ, PSE-EE ETA PP-REN ARTEKOA. Ez da harritzekoa neoliberalek politika neoliberalak hitzartu eta aplikatzea. Beste edozer ulertezina litzateke.

Akordioa gauzatzeko, aurrekontuak eta zerga-politika aurrera ateratzeko behar diren botoak kontutan izanik, PP beharrezkoa da.

Gogoratu aldaketa fiskalekin eman diguten ikuskizuna: Lehenik Azpiasu Ogasun sailburuak esan zuen enpresek gehiago ordaindu behar zutela, gutxi ordaintzen zutelako. Kristoren iskanbila sortu zuen. Berehala kargu hartu zion Confebaskek, baina baita bere alderdiaren esku dauden aldundiek ere. Orain antzezpena bukatu da; PPrekin tratua egin nahi dute Confebaski arrazoiak eman eta enpresen zergak jaisteko. Hautatzen diren bidelagunek ere adierazten dute zer nolako politikak egiten diren.

Eztabaida fiskalarekin gertatu denak erakusten du Confebaskek zenbateraino daukan kateatuta klase politiko sistemikoa. Duela urtebete Rementeria Bizkaiko Diputatu Nagusiak esan zuen Cebe patronalaren batzar batean "sukalde-lana" egin zezatela PSE-EErekin. Esan zien bat zetorrela enpresarioek zergak jaisteko interesarekin, baina -errepikatu zien- PSE-EE beharrezkoa omen zen Batzar Nagusietan erabakia hartzeko. Orain PP da beharrezkoa.

Donald Trumpek antzeko gezurrak botatzen ditu enpresek gero eta gutxiago ordain dezaten. Euskal enpresek espainiarrek baino gutxiago ordaintzen dute: gutxi edo ezer ez. Tasa nominalak ez du axola. Euskal enpresen %78ak galerak dituztela esaten dute, edota 6.000 eurotik beherako etekinak. Inork ez ditu datu hauek sinesten; nola dira posible? Enpresen iruzur fiskala jazartzen ez delako.

5.- EZINBESTEKOA DA ALTERNATIBEN KONTRASTEA. Datuak behar ditugu, benetako informazioa; lehenetsun nagusia gure jendearen interesak eta nahiak izan behar dira... Lan hau guk egin behar dugu; ezker politikoak egin behar du.

Desberdintasun soziala murrizteko borroka politikak hauen aurkako oposizio argia eskatzen du. Eskuinari ondo ulertzen zaio hitz egiten duenean, eta badaki indarrak batzen. Ezker politikoak gauza bera egin behar du, baina kontrako norabidean.